ASTE BAT

GARAZI CONDE ORUBE
DBH 1. eta 2. kurtsoak 2. saria
Berako Labiaga Ikastola

Azken hiru hilabeteetako ostiralero bezala, Jon, Zarauztik Donostiara doa asteburua aitaren etxean pasatzera. Ez doa bakarrik. Autoan, Leire, bere arreba zaharragoa, aurrealdean doa eserita, aitaren ondoan; eta Mikel, bere anaia gaztea, autoaren atzeko eserlekuko beste aldean doa, leihotik begira, Jon bezala. Aurreko uda dauka gogoan, "Port Aventura"-ra joan zirenekoa, familia guztiak batera hain ongi pasa zutenekoa; Jonek malkoak nabaritu ditu begien barrualdetik. Ia ostiralero bezala, gaueko bederatziak aldera ailegatu dira aitaren alde zaharreko pisu txikira, eta Mikelek Boulevardeko izozki dendako izozki bat eskatu dio aitari, baina otsaila denez, aitak barkatzeko baina ez diola erosiko esan dio eta horren ordez, patata poltsa bat erosi dio. Etxeko atea ireki eta arrebak egin duen lehen gauza maletatxoa utzi eta "sofakama" zabaltzea izan da. Bertan egiten du lo Leirek; Mikelek lau urte dituenez, aitarekin egiten du lo, eta Jonek aitaren bulegoko ohatzetxoan. Telebista pixka bat ikusi eta ohera joan dira, beti bezala.

Larunbat goiza, aste honetan plana aukeratzea, Joni tokatzen zaionez, Igeldora igotzea erabaki du. Eguraldi ona dago. Joni mugikorrera asteburuko lehen sms-a iritsi zaio. Neskalagunarena da, Laidarena. Faltan botatzen duela dio eta gero asteazkeneko azterketa prestatuta al daukan galdetzen du eta, azkenik, muxuak eta besarkadak. Izan ere, gurasoak bereizi zitzaizkionetik, Jonen notek nabarmen egina zuten gora. Errudun sentitzen zelako apika. Atrakzioren batera igo eta bazkaltzeko bueltan dira etxean. Makarroiak eta arraina saltsan, Leirek nahi bezala. Siesta egin ondoren, hondartzan paseatzera joan dira. Hareazko gazteluak egiteaz nekatuta, alde zaharrera joan dira afaltzera. Gero etxera, lotara. Igandea da eta euria hasi du. Etxean gelditu dira, aspertuta, aita bideoklubera zihoan bitartean, bazkaria prestatzen. Bazkaldu ondoren, DVD-a ikusi dute eta seiak aldera, maleta autoan sartu eta Zarautz aldera abiatu dira, igandero bezala. Ailegatu eta amarekin ogitarteko bat jatera joan dira. Gero, ordu erdi egon da Laidarekin, eta etxera joan dira.

Astelehen goiza, amaren etxean motxila hartu eta eskolara joan dira hirurak. Mikel utzi eta anai-arrebak institutura abiatu dira lagunekin. Klaseen ondoren, etxera joan dira bazkaltzera, hiruretan. Mikel jada han egoten da, bazkalduta eta telebista ikusten. Jonek eta Leirek bazkaldu bitartean ama lanera joaten baita hiruretarako, ostegunetan ezik. Beren amak arropa denda bat du. Lau eta erdietan liburutegira joan da Jon; Laida, Jokin, Ainhoa, Eneko eta Xabirekin elkartu da etxeko lanak egiteko. Seietan futboleko entrenamendura joan da eta bukatzean, zortzietan, etxera bueltatu da. Afaldu, telebista pixka bat ikusi eta ohera joan dira denak.

Hurrengo goizean, berriro ere eguneroko errutinan jarraitu dute: esnatu, institutura joan, bazkaldu, etxeko lanak egin, lagunekin egon, afaldu, telebista eta ohera. Ostegun arratsaldea eta ama Leirerekin joan da erosketak egitera eta Mikel aitona-amonen etxean dago. Jonek, hori aprobetxatuta, Laida deitu du zinemara joateko, pelikula bat ikustera. Bost eta erdietan gelditu dira. Bostetan neskaren bila abiatu da. Bost hilabete elkarrekin eta hagitz ongi daude; edo hala uste du Jonek behintzat. Lehenago atera da sorpresa emateko eta Laida prestatu gabe aurkitu du. Ordu laurdenez itxaron behar izan du Laida bere gelatik ateratzeko. Behin aterata, zinera joan dira beldurrezko pelikula bat ikustera. Atera direnean hondartzara joan dira paseatzera eta hainbat muxuren ondoren, etxera joan dira. Jon etxera itzultzen zihoala, Eneko aurkitu du eta berarekin solasean gelditu da. Bederatzietan etxera ailegatu da. Ama eta alabak ez dira itzuli eta bera Mikelen bila joan da, aitona-amonen etxera, anaiaren bila. Mikeli afaltzen eman eta ohean sartu du, gero Jonek berak afaldu eta sofan eseri da telebista ikusteko. Hurrengo egunean, bazkaldu ondoren, etxeko lanak egin ditu. Gero, lagunekin joan da futbolean jolastera; bueltatu, dutxatu eta maleta egin du. Aita etorri zaie bila. Azken hiru hilabeteetako ostiralero bezala, Jon, Zarautzetik Donostiara doa asteburua aitaren etxean pasatzera.